



**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza  
Osasun Plangintza eta  
Antolamenduko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

Viceconsejería de Sanidad  
*Dirección de Planificación y  
Ordenación Sanitaria*

**HILKORTASUNA**  
**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN**  
**2006**

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua  
Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza  
Osasun Saila

## Laburpena

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren pertsonen hilkortasunari buruzko informazioa aurkezten da, baita 2006. urtean beste autonomia-erkidegoetan hildakoena ere. Pertsona horien banaketa egiteko sexua, adina eta lurralde historikoa kontuan hartu dira, oinarrizko heriotza-arrazoia aldagai nagusi gisa erabiliz.

18.507 heriotza gertatu dira, 8.697 (% 47) emakumezko eta 9.810 (% 53) gizonezko. Arrazoi guztiak kontuan hartuta, hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 869. Horietatik 798 emakumezkoek dagozkie eta 943 gizonezkoek.

Zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta tumoreak dira, EAEko biztanlerian lehenengo heriotza-arrazoi gisa agertzen direnak, heriotza guztien % 30 eta 100.000 biztanleko 264 eta 262ko tasekin, hurrenez hurren. Maiztasun-ordena kontuan hartzen bada, % 11rekin arnas sistemako gaixotasunak atzetik dituzte, 100.000 biztanleko 82ko tasarekin.

Urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa, bizirik jaiotako 1.000 hurreko 3,3 hildakoena da; eta jaiotza-inguruko heriotza-tasa (hilik jaio direnak gehi bizitzako lehenengo astean hildakoak), guztira jaiotako 1.000 haurretik 7,0koa da.

Jaiotzean dagoen bizi-itzaropena, edo batez besteko bizitza, EAEn 2006. urtean 85,6 urtekoa da emakumezkoetan eta 78,3 urtekoa gizonezkoetan. Beraz, emakumezko eta gizonezkoen artean 7 urteko aldea mantentzen da.

2006. urtean zehar, honako hauek izan dira bizitza-urte potentzial gehien galdarazi dituzten heriotza-arrazoiak, sexu bietan: tumoreak (% 40), kanpoko arrazoiak (% 22) eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak (% 16).

Azken hamarkadan, tumore gaiztoek eragindako hilkortasunak behera egin du emakumezkoen kasuan. Jaitsiera hori esanguratsua izan da, urteko batez bestekoa % 1ekoa izan delako, hala nola: 1997. urteko 113,1eko tasa 2006. urtean 100.000 biztanleko 102,4ra jaitsi egin da. Gizonezkoetan, ordea, jaitsiera zertxobait txikiagoa izan da, urteko batez bestekoa % 0,6koa izan baita, hala nola: 1997. urteko 277,7ko tasa 2006. urtean 100.000 biztanleko 246,4ra jaitsi da.

## Materiala eta Metodoak

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hilkortasun-datuei buruzko informazioa bilatzeko, honako hauek dira erabiltzen diren informazio-iturri nagusiak: Heriotzaren Buletin Estatistikoak (HBE) eta Erditze, Jaiotza eta Abortuen Buletin Estatistikoak (EJABE). Lehenengo buletinek, 24 ordu baino gehiago dutenen artean gertatutako heriotzak biltzen dituzte; bigarrenak, berriz, lehenengo 24 orduetan hildakoak eta fetuaren heriotza berantiarak (ernaldiko 22 aste baino gehiago edo 500 gramoko pisua dutenak).

HBE horiek, Heriotza Ziurtagiri Mediko Ofizialarekin (HZMO) batera, heriotza ziurtatzen duen medikuak osatzen ditu. Heriotza gertatu den udalerriko Erregistro Zibilean, hildakoa inskribatzen da, HZMO delakoa artxibatzen da eta HBE hori Estatistikako Institutu Nazionaleko (EIN) dagokion probintziako ordezkarietara bidaltzen da.

HBE delakoak, Euskal Estatistikako Erakundearen (EUSTAT) bitartez, Osasun Saileko Hilkortasun Erregistrora heltzen dira; eta bertan, oinarriko heriotza-arrazoia kodetzeari ekiten zaio. Kodetze hori, halaber, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. berrikuspenak (GNS-10)(1) ezartzen dituen irizpideak eta arauak kontuan hartuta egiten da. Dokumentuen zirkuitua 1. eranskinean aurki daiteke.

2006. urtean EAEn bizi zen biztanleria, betetako adina, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta, Euskal Estatistikako Erakundeak / EUSTATEk (2. eranskina) emandako 2006ko biztanleria eta etxebizitzari buruzko estatistikari dagokio. Gainera, denboraldi horretan EAEn gertatutako jaiotzei buruzko informazioa ematen du, informazio hori haurren heriotza-tasak (3. eranskina) kalkulatzeko beharrezkoa baita.

Honako hauek dira kalkulatzeko diren hilkortasun-adierazleak: hilkortasun proportzionala, hilkortasun-tasa gordinak, adinaren arabera doitutako tasak estandarizazio zuzenaren bidez, erreferentziako biztanleria gisa Europako biztanleria estandarra hartuta (2).

Haurren heriotza-tasaren (urtebetetik beherakoak) analisisan, hildakoen adina hiru alditan taldekatu da: jaioberri goiztiarra (7 egun baino gutxiago dutenak), jaioberri berantiarra (7 egunetik 28 egunera bitartekoak) eta jaioberri ondokoak (28 egunetik urtebetera artekoak).

Hauxe da haurren heriotza-tasak kalkulatzeko izendatzailea: EAEn 2006. urtean bizirik jaiotakoak guztira. Horrez gain, jaiotza-inguruko hilkortasuna (ernaldiko 22 aste baino gehiago edo 500 gramoko pisutik gora izan eta hilik jaiotakoak) aztertu da, baita jaioberri aldi goiztiarrean hildakoak ere, euren izendatzailea hauxe delarik: jaiotako guztiak, bizirik jaiotakoak gehi 22 astetik gorako ernaldia izan eta hilik jaio direnak (1).

Bizi-itxaropena kalkulatzeko, Chiang metodoaren arabera (3) laburtutako bizitza-taularen kalkulua erabili da. 5 urteko adin-tarteak aintzat hartu dira, urte batetik beherakoena eta urte batetik 4 urtera artekoena izan ezik.

Garaiz aurreko hilkortasunaren eragina baloratzeko, Galdutako Bizitza Urte Potentzialak (GBUP) kalkulatu dira. Adierazle horrek hauxe adierazten du: jaiotzaren lehen urtearen ondoren garaia baino lehenago hil den pertsonak bizi dituen urteak, 70 urte izatea goimugatzat hartuz (4). Konparazioetan biztanleen adinen araberrako

banaketak izan dezakeen eragina saihesteko, GBUPak Europako biztanleria estandarren adina kontuan hartuta doitu dira.

Berriro aztertu da, azken hamarkadan (1997-2006) tumore gaiztoek eragindako hilkortasunaren eboluzioa (GNS-10eko C00-C97 kodeak). Honako hauek izan dira aukeratutako tumore gaiztoak: urdaila (GNS-10: C16), kolon-ondestea (GNS-10: C18-C21), birrikak (GNS-10: C33-C34), bularra (GNS-10: C50), umetoki lepoa (GNS-10: C53), prostata (GNS-10: C61), ehun linfatikoak eta organo hematopoietikoak (GNS-10: C81-C91, C96) eta buru eta lepoaren elkarketa, beste hauek barnean hartzen duena: ezpain, aho-barrunbe eta faringeko tumoreak (GNS-10: C00-C14) eta laringekoak (GNS-10: C32).

Eboluzioa, Poisson-en erregresio-eredua (5) erabiliz kuantifikatu da, sexu bakoitzarentzat eta lurralde historiko bakoitzarentzat. Eredu horri jarraiki, heriotzak mendeko aldagaitzat hartu dira; aldagai independentetzat, ostera, adina eta heriotzaren urtea.

Lurralde bakoitzean tumoreek eragindako hilkortasuna konparatzeko, hilkortasun-arrazoi estandarizatua (HAE) kalkulatu da, erreferentzia gisa EAE osoa hartuz (6).

Aurreko txostenetan bezala, 2002-2010eko Osasun Planean (7) ezarritako hilkortasun-adierazleen egoera aurkezten da.

## **Emaitzak**

### ***1. Heriotza-kopurua eta tasak***

2006. urtean, EAEn bizi ziren 18.507 pertsona hil dira. Horietako 593, beste autonomia-erkidego batzuetan hil egin dira. Erregistratutako heriotzak guztira hartuta, 8.697 (% 47) emakumezkoei dagozkie eta 9.810 (% 53) gizonezkoei.

EAEn haxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 869,1, eta sexuen arabera 798,3 emakumezkoentzat eta 943,3 gizonezkoentzat. Adinaren arabera Europako biztanleria estandarrari doitutako hilkortasun-tasak, 100.000 biztanleko 348,7koak dira emakumezkoen kasuan eta 684,7koak gizonezkoen kasuan. Lurralde historikoa kontuan hartzen bada, sexu bietan, honako kopuru hauek ateratzen dira: 451,9 Araban, 512,3 Bizkaian eta 485,9 Gipuzkoan (1. taula).

1. irudian, azken hamarkadan (1997 - 2006) EAEn hilkortasun-tasek izan duten denboraren arabera eboluzioa ikus daiteke, arrazoi guztiak eta sexua kontuan hartuta, horiek adinaren arabera doituta agertzen direlarik.

2. taulak eta 2. irudiak, berriz, heriotza-kopurua eta adinaren arabera zehaztutako hilkortasun-tasak dakartzate. Tasa horietan jaitsiera nabarmena izan dela nabaritzen da, bizitzako lehenengo urtearen ondoren 10 urtetik 14 urtera bitarteko taldera heldu arte emakumezkoetan eta 5 urtetik 9 urtera bitartekora arte gizonezkoetan, momentu horietan adinak gora egin ahala igoera progresibo bat hasten delarik. Urte batetik 9 urtera arteko kasuetan izan ezik, tasek gizonezkoetan gain-hilkortasuna gertatu dela

erakusten dute emakumezkoekin konparatzen baditugu, 10 urtetik 14 urtera arteko adin-taldean alderik handiena lortzen baita, honako tasen arrazoa ageri delarik: 6,6 gizonezko/emakumezko.



## ***2. Heriotzaren oinarrizko arrazoiaren arabera hilkortasuna***

3. irudian, gaixotasun-talde handien banaketa agertzen da. Zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta tumoreak izan dira, 2006. urtean, EAEko biztanleen arteko lehenengo heriotza-arrazoi gisa agertzen direnak, heriotza guztien % 30a islatu baitute. Maiztasun-ordena kontuan hartuta, atzetik arnas sistemako gaixotasunak (% 9,4), digestio-sistemako gaixotasunak eta nerbio-sistemako gaixotasunak (azken biak % 5,1eko tasarekin) ageri dira, eta jarraian trastorno mentalak (% 4,5) eta kanpoko arrazoiak (% 3,8).

Hauxe da sexuen arabera egiten den banaketa: emakumezkoetan lehenengo heriotza-arrazoiak zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira (% 33,9), eta ondoren tumoreak (% 23,2), arnas sistemako gaixotasunak (% 8,5), trastorno mentalak (% 6,5) eta nerbio-sistemako gaixotasunak (% 6,4) daude. Gizonezkoetan, ostera, tumoreak dira lehenengo heriotza-arrazoiak (% 36,3), gero zirkulazio-sistemako gaixotasunak datoz (% 27,2); eta jarraian beste hauek: arnas sistemako gaixotasunak (% 10,2), digestio-sistemako gaixotasunak (% 5,4), eta kanpoko arrazoiak (% 5,1).

Lurralde historikoa kontuan hartuta, tumoreak (% 30) eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak (% 29) kokatzen dira lehenengo postuetan Araban eta Gipuzkoan. Bizkaian, aldiz, ordena atzekoz aurrera jartzen da, lehenengo arrazoiak zirkulazio-sistemako gaixotasunak direlako (% 31) eta bigarrena tumoreak (% 30). Jarraian, eta hiru lurraldeetan, beste hauek dauzkagu: arnas sistemako gaixotasunak Araban eta Bizkaian % 9ekin eta Gipuzkoan % 10ekin; digestio-sistemako gaixotasunak Araban eta Gipuzkoan % 6ekin eta Bizkaian % 5ekin. Bestalde, 3. eta 4. tauletan (4A, 4B, 4C) hilkortasun-tasak ikus

daitezke gaixotasun-talde handiak, sexua eta lurralde historikoa kontuan hartuta.

Adin-taldeen araberako heriotzak 5. taulan aurkezten dira. Urte bat baino gutxiago dutenen kasuan, jaiotza-inguruko eritasunak eta sortzetiko anomaliak dira sarrien gertatzen diren arrazoiak. Bi horien baturak, adin-talde horretan gertatutako heriotza guztien % 89 adierazten du emakumezkoen kasuan eta % 86 gizonezkoen kasuan.

10 urtetik 39 urtera arteko emakumezkoetan, lehenengo heriotza-arrazoa tumoreak dira, adin horretan heriotzen % 33 baitira. Kanpoko arrazoiak (horien artean trafikoko istripuak daude), lehenengo heriotza-arrazoa dira 15 urtetik 19 urtera arteko adin-taldean; eta bigarrena gainerako taldean (% 23). 40 urtetik 79 urtera artean, tumoreek lehenengo heriotza-arrazoi izaten jarraitzen dute, eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak bigarren postuan daude, 80 urtetik aurrera lehenengo tokira pasatzen direlarik.

10 urtetik 39 urtera arteko gizonezkoetan, kanpoko arrazoiak dira lehenengo heriotza-arrazoa, adin horietan erregistratutako heriotzen kopurua % 54koa baita. Tumoreak bigarren postuan ageri dira (% 17), 15 urtetik 19 urtera arteko adin-taldean izan ezik, zirkulazio-sistemako gaixotasunak aurkitzen baitira. Emakumezkoen kasuan gertatzen den bezala, tumoreak dira helduaroan (40 urtetik 79 urtera) sarrien gertatzen den heriotza-arrazoa, eta bigarren tokian zirkulazio-sistemako gaixotasunak daude, 40 urtetik 44 urtera artekoen kasuan izan ezik. 80 urtetik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira lehenengo heriotza-arrazoa.

Arrazoi espezifikoek eragindako hilkortasuna aztertzen badugu (6. taula), ikus daiteke emakumezkoetan lehenengo heriotza-arrazoa gaixotasun zerebroaskularra dela (% 10), adinaren arabera Europako biztanleriari doitutako tasa haxe baita: 100.000 biztanleko 31,5eko heriotza. Bigarren tokian (% 7) kardiopatia iskemikoa - miokardioko infartu akutua (MIA) gehi bihotzeko beste gaixotasun iskemiko batzuk barne hartzen dituen aurkitzen da, 100.000 biztanleko 21,1eko tasarekin; ondoren, trastorno mental organiko senilak eta presenilak daude (% 6), 17,0ko tasarekin. Jarraian, bihotz-gutxiegitasuna ageri da (% 5), 13,6ko tasarekin, Alzheimer-en gaixotasuna (% 4), 11,6ko tasarekin eta % 3ko tasarekin bularreko tumore gaiztoa, gaixotasun hipertentsiboak eta diabetesa, horien tasak, hurrenez hurren, honako hauek direlarik: 100.000 biztanleko 17,9, 8,8 eta 9,3.

Gizonezkoetan, honako hauek dira lehenengo heriotza-arrazoiak (guztizkoaren % 9): zintzurresteko tumore gaiztoa, bronkio eta biriketako eta kardiopatia iskemikoa, adinaren arabera Europako biztanleriari doitutako tasak, hurrenez hurren, honako hauek baitira: 100.000 biztanleko 63,4 eta 59,6. Hirugarren tokian (% 7), gaixotasun zerebroaskularrak daude, 47,2ko tasarekin; jarraian, % 5ekin biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) dago, 100.000 biztanleko 33,3ko tasarekin. Beste hauek % 3 adierazten dute: koloneko tumore gaiztoa, gaizki definitutako tokietako edo bigarren mailako tumore gaiztoa, trastorno mental organiko senilak eta presenilak eta prostatako tumore gaiztoa, horien tasak, hurrenez hurren, honako hauek direlarik: 100.000 biztanleko 23,3, 18,8, 16,6 eta 16,2.

Lurralde historikoaren arabera eta bi sexuetarako, gaixotasun zerebrobaskularra eta kardiopatia dira heriotza-arrazo nagusiak hiru lurraldeetan (7C taula), honako hauek direlarik adinaren arabera Europako biztanleriarekin doitutako tasak: 100.000 biztanleko 41,2 eta 40,6 Bizkaian, 36,3 eta 33,0 Gipuzkoan, eta ordena atzekoz aurrera jartzen da Araban 39,4ko tasarekin kardiopatia iskemikorako eta 31,7koa gaixotasun zerebrobaskularrerako. Hirugarren tokian eta hiru lurraldeetan, zintzurresteko, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa dago, honako tasa hauekin: 25,3 Araban, 36,9 Bizkaian eta 33,1 Gipuzkoan. Araban eta Bizkaian, segidan trastorno mental organiko senil eta presenilak eta BGBK aurkitzen dira, haien tasak, hurrenez hurren, honako hauek direlarik: 17,4 eta 16,1 Araban eta 17,8 eta 16,2, Bizkaian. Ordena hori aldatu egiten da Gipuzkoa BGBK laugarren tokian baitago, 17,5eko tasarekin; eta jarraian trastorno mental senil eta presenilak daude, 100.000 biztanleko 15,9ko tasarekin.

7A eta 7B tauletan, gizonezkoetan eta emakumezkoetan lurralde historikoaren arabera aukeratutako arrazoiek eragindako hilkortasun-tasak ikus daitezke.

### ***3. Haurren heriotza-tasa***

2006. urtean zehar, 66 heriotza gertatu dira urtebete baino gutxiago duten EAEko biztanleen artean; eta horrek, haurren heriotza-tasa bizirik jaiotako 1.000 biztanleko 3,3koa dela adierazten du (3,8 nesken kasuan eta 2,8 mutilen kasuan). Lurralde historikoak kontuan hartuta (8. taula), Araba da tasa baxuenak dituen nesken kasuan (1.000 biztanleko 2,2) eta Gipuzkoa mutilen kasuan (bizirik jaiotako 1.000 biztanleko 2,2). 9. taulan, aldien arabera aurkezten dira

haurren heriotza-tasaren datuak, lurralde historikoak eta sexua kontuan hartuta.

EAEn jaiotza-inguruko hilkortasun-tasa 7,0koa da guztira jaiotako 1.000 biztanleko (6,9 nesken kasuan eta 7,0 mutilen kasuan). Nesken kasuan, Bizkaiak ditu tasarik altuenak (8,5) eta Arabak baxuenak (2,9). Mutilen kasuan, Arabak tasa altuenak ditu (10,6), eta Gipuzkoak baxuenak, guztira jaiotako 1.000 biztanleko 4,8ko tasa baitu (10. taula).

#### ***4. Bizi-itxaropena***

Jaiotzean dagoen bizi-itxaropena, edo batez besteko bizi-urteak, EAEn 2006. urtean 85,6 urtekoa da emakumezkoetan eta 78,3 urtekoa gizonezkoetan. Araba da jaiotzean dagoen bizi-itxaropenik handiena erreparatzen den lurraldea: emakumezkoen kasuan 86,62 urte eta gizonezkoen kasuan 79,4 urte. Ondoren, Gipuzkoa (85,9 urte emakumezkoetan eta 78,7 urte gizonezkoetan) eta Bizkaia (85,3 urte emakumezkoetan eta 77,7 urte gizonezkoetan) datoz.

Sexuen artean, bizi-itxaropenaren arteko desberdintasunak 7 urte inguruan mantentzen dira, gutxi gorabehera, 54 urtera arte; eta adinak gora egin ahala behera egiten du, 6 urtekoa izanik 64 urtera arte eta 2 urtekoa 85 urterekin (11. taula).

#### ***5. Galdutako Bizitza Urte Potentzialak***

Azterketa gaixotasun-talde handiak kontuan hartuta egiten bada, sexu bietan, tumoreak (% 44), kanpoko arrazoiak (% 18), zirkulazio-

sistemako gaixotasunak (% 16), digestio-sistemako gaixotasunak (% 6) eta gaixotasun infekzioso eta parasitarioak (% 5) izan dira, 2006. urtean, bizitza-urte potentzial gehien galdarazi dituzten heriotza-arrazoiak.

Honako hauek izan dira, emakumezkoetan, bizitza-urte potentzialen galerarik handiena sorrarazi dituzten arrazoi espezifikoak: bularreko tumore gaiztoa (2.253 bizitza-urte potentzial galdua eta adinaren arabera Europako biztanleria estandarrari doitutako tasa 1.000 biztanleko 2,1ekoa izanik), eta maiztasun-ordenaren arabera beste hauek ageri dira: zintzurresteko, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa (1.445 urte eta 1,3ko tasa), gaixotasun zerebrobaskularrak (728, eta 0,7ko tasa), gaizki definitutako tokietako edo bigarren mailako tumore gaiztoak (635 eta 0,6ko tasa) eta garuneko tumore gaiztoa (615 eta 0,6) (12. taula). Gizonezkoetan, garaiz aurreko hilkortasunik handiena honako hauek eragiten dute: zintzurresteko, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa (4.823 urte, eta adinaren arabera Europako biztanleriari doitutako 1.000 biztanleko 4,6koa da), kardiopatia iskemikoa (3.373 urte eta 3,2ko tasa), motor-ibilgailuen trafikoko istripuak (2.955 eta 3,2), suizidioak eta autolesioak (2.190 eta 2,1) eta zirrosia eta gibelesko gaixotasun kronikoak (1.875 eta 1,8).

Emakumezkoetan, hiru lurraldeetan, bularreko tumore gaiztoa lehenengo postuan aurkitzen da, adinaren arabera Europako biztanleria estandarrari doitutako tasak honako hauek baitira: 1.000 biztanleko 1,6 Araban, 2,4 Bizkaian eta 1,8 Gipuzkoan. Bigarren postuan, Araban, trafikoko istripuak daude (1,8ko tasa), eta beste bi lurraldeetan, postu hori zintzurresteko, bronkio eta biriketako tumore gaiztoak hartzen du, beren tasak 1,5ekoa Bizkaian eta 1,3koa Gipuzkoan direlarik. Hirugarren postuan, gaizki definitutako tokietako

edo bigarren mailako tumore gaiztoak daude Araban 0,8ko tasa daukatelarik, Hiesa (1.000 biztanleko 0,7) Bizkaian eta koloneko tumore gaiztoa (1.000 biztanleko 0,7) Gipuzkoan.

Arabako gizonezkoen artean, garaiz aurreko hilkortasunik handiena motor-ibilgailuen trafikoko istripuek eragindakoa da, adinaren arabera Europako biztanleriari doitutako tasa 1.000 biztanleko 3,5ekoa baita. Bigarren postuan, zintzurresteko, bronkio eta biriketako tumore gaiztoa dago (2,9ko tasa). Ordena hori atzekoz aurrera jartzen da Bizkaian eta Gipuzkoan zintzurresteko, bronkio eta biriketako tumore gaiztoak lehenengo postua hartzen duelako (5,4 eta 4,1eko tasak, hurrenez hurren). Ondoren, trafikoko istripuak daude (1.000 biztanleko 3,5 eta 2,6). Jarraian, Araban eta Bizkaian, miokardioko infartu akutua eta suizidioak eta autolesioak ageri dira, 1.000 biztanleko 2,2ko tasarekin. Gipuzkoan, hirugarren postuan suizidioak eta autolesioak daude; ondoren, zirrosia eta gibeledko gaixotasun kronikoak, biak 1.000 biztanleko 2,2ko tasarekin (13A, 13B eta 13C taulak).

## ***6. Tumore gaiztoen eboluzioa***

Emakumezkoetan tumore gaiztoek eragindako hilkortasunak modu esanguratsuan behera egin du azken hamarkadan (urteko batez bestekoa= % 1), Europako biztanleria estandarrari adinaren arabera doitutako tasa, 1997. urtean, 100.000 biztanleko 113,1ekoa izatetik 2006. urtean 102,4koa izatera igaro baita. Jaitsiera handiena izan duen tumorea urdailekoa da (% 3,5), eta Araba da jaitsierarik handiena (% 2) izan duen lurraldea. Jarraian, %3ko jaitsierarekin, beste hauek agertzen dira: bularreko tumore gaiztoa (Arabian % 6ko jaitsierarekin eta Gipuzkoan % 3koa), eta ehun linfatiko eta

hematopoietikoen tumore gaiztoa (%3ko jaitsiera EAE osoan, baina lurralde batean ere ez du aldaketa esanguratsurik agertzen). Azken hamarkada honetan, emakumezkoetan, hilkortasunari dagokionez igoera esanguratsua izan duen tumore gaizto bakarria biriketako tumorea da (% 3,3) eta Gipuzkoa izan da % 5,5eko igoera esanguratsua izan duen lurralde bakarria (4. eta 5. irudiak, 14. eta 15. taulak).

Gizonezkoetan jaitsiera emakumezkoen kasuan baino txikiagoa izan da, urteko batez bestekoa % 0,6koa izan baita. Urdaileko tumore gaiztoa izan da, halaber, gehien jaitsi dena (% 3,6), eta Araba da jaitsierarik handiena izan duen lurraldea (% 5,1); ondoren, Gipuzkoa (% 3,8) eta Bizkaia (% 3,2) datozelarik. % 2ko jaitsierarekin beste hauek daude: prostatako tumoreak (% 4,2 Araban eta % 2,2 Gipuzkoan), ehun linfatiko eta hematopoietikokoak (Gipuzkoan baino ez da esanguratsua % 3ko tasarekin) eta buru eta lepoko tumore gaiztoak (jaitsiera esanguratsua Bizkaian baino ez da gertatu, % 1,6). Aitzitik, kolon-ondesteko tumore gaiztoak hilkortasunaren igoera esanguratsua jasan du, urteko batez bestekoa % 1,5koa izan delako; eta Gipuzkoa izan da igoerarik handiena izan duen lurraldea (% 2), ondoren Bizkaia dagoelarik % 1,4ko tasarekin (4 eta 5 irudiak, 14 eta 15 taulak).

Hiru lurraldetako tasak EAE osoarekin konparatzen baditugu, Arabako emakumeek urdaileko tumore gaiztoak eragindako hilkortasun handiagoa dute, baina biriketako eta bularreko tumore gaiztoen hilkortasuna baxuagoa da. Bizkaiko eta Gipuzkoako emakumezkoetan ez da alde esanguratsurik nabaritzen, EAE osoko datuekin alderatzen baditugu. Gizonezkoetan, tumore gaiztoek eragindako hilkortasuna, oro har, txikiagoa da Gipuzkoan eta Araban, eta azken lurralde horretan, gainera, biriketako tumore gaiztoak eragindako



hilkortasuna txikiagoa da. Bizkaiko gizonezkoetan ez dago alde esanguratsurik EAE osoarekiko (16. taula).

## Oharrak

2006. urtean zehar, heriotza-kopuruak % 5eko jaitsiera izan du, aurreko urtean baino 918 heriotza gutxiago gertatu baitira. Adinaren arabera doitutako hilkortasun-tasa, 2005ean baino % 10 baxuagoa da, baina azken hamarkada (1997-2006) bere osotasunean hartzen bada, tasa horrek urteko batez besteko % 2,1eko jaitsiera izan du, sexuen arabera jaitsiera % 2,0koa izan delarik emakumezkoetan eta % 2,5ekoa gizonezkoetan.

Zirkulazio-sistemako gaixotasunek heriotza-arrazoi nagusia izaten jarraitzen dute, aurreko urtearekiko kasu-kopuruak behera egin duen arren (% 4koa emakumezkoetan eta % 6koa gizonezkoetan). Kardiopatia iskemikoak, berriz, % 5,4ko igoera izan du gizonezkoetan, baina emakumezkoetan % 7ko jaitsiera jasan du. Jarraian tumoreak agertzen dira, 2004. urtearekiko % 0,3ko jaitsiera arin batekin. Aurreko urteetan bezala, bularreko tumore gaiztoa, emakumezkoetan, lehenengo tokian mantentzen da, baina % 4ko jaitsiera izan du, 2005ekin konparatzen badugu. Gizonezkoetan postu hori zintzurrestekoa, bronkio eta biriketako tumore gaiztoak hartu du, aurreko urtearekiko % 5eko igoera izan baitu. Sexu bietan, koloneko tumore gaiztoak bigarrentokia hartzen du, emakumezkoetan % 11ko jaitsiera eta gizonezkoetan % 2koa ageri delako, 2005eko datuekiko.

Arnas sistemako gaixotasunak hirugarren postuan daude, eta 2006. urtean gehien jaitsi diren gaixotasunak izan dira (% 27, bi sexuetan).

Kanpoko arrazoen artean trafikoko istripuak nabarmentzen dira, % 44ko jaitsiera gertatu baita emakumezkoetan eta % 23koa gizonezkoetan. Bestalde, suizidioak aipatu behar dira, % 30eko jaitsiera izan baitute emakumezkoetan eta % 11koa gizonezkoetan.

Gaizki definitutako arrazoiek ere jaitsiera garrantzitsua izan dute, hala nola: % 17koa emakumezkoetan eta % 23koa gizonezkoetan.

Haurren heriotza-tasak eta jaiotza-ingurukoak % 12ko eta % 19ko igoera izan dute, hurrenez hurren, 2005. urteko kopuruekin konparatzen baditugu.

Hauxe izan da heriotza-arrazoi guztien eraginez Galdutako Bizitza Urte Potentzialen (GBUP) kopurua guztira: 17.554 emakumezkoetan eta 42.346 gizonezkoetan; beraz horrek esan nahi du, 2005. urtearekiko, % 3ko eta % 4ko jaitsiera gertatu dela. Emakumezkoetan azpimarratu behar da, suizidioek eta autolesioek eragindako GBUPetan % 117ko jaitsiera egon dela, eta % 102koa izan dela trafikoko istripuek eragindakoa, eta jaitsiera txikiagoa izan da (% 22) garuneko tumore gaiztoek eragindako GBUPak kontuan hartzen baditugu. Hala ere, % 40ko igoera izan dute ondesteko tumore gaiztoek eragindako GBUPek, eta % 36koa izan da biriketako tumore gaiztoek eragindakoa. Gizonezkoetan, emakumezkoetan bezala, trafikoko istripuek, suizidioek eta autolesioek eta Hiesak eragindako GBUPek % 26ko, % 25eko eta % 23ko jaitsiera izan dute, hurrenez hurren, aurreko urteko kopuruekin konparatzen baditugu; aitzitik, koloneko tumore gaiztoak, 2006an, % 30 GBUP gehiago eragin ditu.

1997-2006 hamarkadan tumore gaiztoen eboluzioak ez du aldaketa handirik aurkezten, duela 4 urte aztertutako 1993-2002 denboraldiarekiko (7); eta hori, neurri batean, aztertutako urteen gainjarpenak eragin du.

Aurreko urteetan bezala, 2006. urtean hilkortasunarekin zerikusia duten adierazleen egoera aurkezten da, 2002-2010eko Osasun Planean definitutako abiatzeko egoerarekiko (17. taula).

***Eskerrak eman nahi dizkiegu:*** hildakoen heriotza-arrazoiak ziurtatu eta gure galderak erantzuten dituzten mediku guztiei eta, bereziki, informazio zehatzagoarekin datuen zehaztasunean parte hartzen dutenei (auzitegiko medikuak eta obstetrak).

## Erreferentzia Bibliografikoak

1. Osasunaren Erakunde Panamerikarra. *Clasificación Estadística Internacional de Enfermedades y Problemas relacionados con la Salud*. Hamargarren berrikuspena. 1-3 liburukiak. Washington DC: OPS; 1996.
2. Dos Santos I. *Cancer Epidemiology: principles and methods*. International Agency for Research on Cancer, Lyon, 1999, 82. or.
3. Chiang CL. *The Life Table and its applications*. Malabar, Florida: Robert E Krieger Publishing Company, 1884.
4. Esteve J, Benhamou E and Raymond L. *Statistical methods in cancer research. Descriptive Epidemiology*. Lyon: International Agency for Research on Cancer. Scientific Publications, 128 zk., 1994.
5. Frome EI, Checkoway H. *Use of Poisson Regression models in estimating incidence rates and ratios*. AM J Epidemiol, 1985, 121: 309-323.
6. Boyle P, Parkin DM. *Métodos estadísticos para los registros*. Jensen OM, Parkin DM, Maclennam R, Muir CS, Skeet RG Eds. *Registros de Cáncer: Principios y Métodos*. Lyon: Minbizia Ikertzeko Nazioarteko Agentzia, 1995.
7. Osasun Saila. *Hilkortasuna Euskal Autonomia Erkidegoan 2002*. [http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-20737/es/contenidos/informacion/estado\\_salud/es\\_5463/mortalidad\\_c.html](http://www.osasun.ejgv.euskadi.net/r52-20737/es/contenidos/informacion/estado_salud/es_5463/mortalidad_c.html)
8. Osasun Saila. *Euskadirako osasun politikak: 2002-2010 Osasun Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpenen Zerbitzu Nagusia, 2002.

**TAULAK**

**1. taula . Heriotza-kopurua eta hilkortasun-tasak, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta.  
EAE 2006**

	Emakumezkoak				Gizonezkoak				Bi sexuak			
	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(IKT% 95)
<b>Araba</b>	1.024	667,0	315,4	(294,2 - 336,6)	1.223	803,1	614,4	(579,9 - 648,8)	2.247	734,7	451,9	(432,5 - 471,4)
<b>Bizkaia</b>	4.853	827,9	360,8	(349,5 - 372,1)	5.508	1000,3	713,5	(694,5 - 732,6)	10.361	911,4	512,3	(501,9 - 522,7)
<b>Gipuzkoa</b>	2.820	806,5	342,0	(328,0 - 356,0)	3.079	913,6	668,2	(644,7 - 691,8)	5.899	859,1	485,9	(472,9 - 498,8)
<b>EAE</b>	<b>8.697</b>	<b>798,3</b>	<b>348,7</b>	<b>(340,6 - 356,8)</b>	<b>9.810</b>	<b>943,3</b>	<b>684,7</b>	<b>(671,1 - 698,3)</b>	<b>18.507</b>	<b>869,1</b>	<b>495,6</b>	<b>(488,1 - 503,0)</b>

\*Gordina 100.000 biztanleko.

\*\* 100.000 biztanleko, Europako biztanleria estandarrari adinaren arabera doituta.

Iturria:

Hilkortasun Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.



**2. taula. Heriotza-kopurua eta hilkortasun-tasak, adin-taldeak eta sexua kontuan hartuta. EAE 2006**

Adina	Emakumezkoak		Gizonezkoak		Bi sexuak		Tasen arrazoia
	K	Tasa*	K	Tasa*	K	Tasa*	
<1	37	365,8	29	274,0	66	318,8	0,7
1-4	3	8,0	7	17,8	10	13,0	2,2
5-9	3	7,2	3	6,8	6	7,0	0,9
10-14	1	2,6	7	17,2	8	10,1	6,6
15-19	4	9,3	16	35,4	20	22,6	3,8
20-24	8	14,1	34	57,3	42	36,2	4,1
25-29	17	21,7	57	68,8	74	46,0	3,2
30-34	27	30,6	69	73,4	96	52,7	2,4
35-39	55	64,8	97	108,8	152	87,3	1,7
40-44	83	95,5	188	215,5	271	155,6	2,3
45-49	136	162,4	252	307,3	388	234,1	1,9
50-54	170	229,4	372	513,8	542	370,0	2,2
55-59	160	228,1	528	772,3	688	496,7	3,4
60-64	259	408,5	645	1077,1	904	733,2	2,6
65-69	293	581,0	751	1669,2	1.044	1094,1	2,9
70-74	598	1021,2	1.300	2709,5	1.898	1781,5	2,7
75-79	1.032	2024,5	1.730	4623,4	2.762	3124,7	2,3
80-84	1.633	4241,5	1.756	7940,7	3.389	5591,0	1,9
85 eta +	4.178	12683,7	1.969	16080,0	6.147	13604,1	1,3

\* 100.000 biztanleko.

Iturria:

Hilkortasun Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**3. taula. Heriotza-kopurua eta hilkortasun-tasak, arrazoi-taldeak eta sexua kontuan hartuta.  
EAE 2006**

Arrazoi-taldeak	Emakumezkoak				Gizonezkoak				Bi sexuak			
	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	182	16,7	7,7	(6,4 - 9,0)	211	20,3	15,0	(12,9 - 17,1)	393	18,5	11,1	(9,9 - 12,3)
II Tumoreak	2.019	185,3	106,1	(101,0 - 111,2)	3.561	342,4	252,4	(243,9 - 260,9)	5.580	262,1	169,4	(164,7 - 174,1)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast.	37	3,4	1,4	(0,9 - 1,8)	26	2,5	1,7	(1,1 - 2,4)	63	3,0	1,5	(1,1 - 1,9)
IV Gaix.endokrinoak	311	28,6	11,4	(10,1 - 12,8)	221	21,3	14,8	(12,8 - 16,9)	532	25,0	12,9	(11,8 - 14,1)
V Trastorno mentalak	561	51,5	17,4	(15,9 - 18,9)	264	25,4	17,7	(15,5 - 19,9)	825	38,7	17,8	(16,6 - 19,0)
VI Nerbio-sistemako gaix.	556	51,0	20,1	(18,3 - 21,9)	383	36,8	25,5	(22,9 - 28,2)	939	44,1	22,8	(21,3 - 24,4)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	2.951	270,9	101,9	(98,0 - 105,8)	2.664	256,2	181,6	(174,6 - 188,6)	5.615	263,7	137,5	(133,7 - 141,2)
X Arnas sistemako gaix.	739	67,8	25,2	(23,3 - 27,1)	1.000	96,2	65,3	(61,1 - 69,4)	1.739	81,7	40,5	(38,6 - 42,5)
XI Digestio-sistemako gaix.	417	38,3	16,4	(14,7 - 18,2)	532	51,2	38,2	(34,9 - 41,5)	949	44,6	26,2	(24,4 - 28,0)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	27	2,5	0,9	(0,5 - 1,2)	12	1,2	0,7	(0,3 - 1,1)	39	1,8	0,8	(0,6 - 1,1)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko g	122	11,2	4,2	(3,4 - 5,0)	37	3,6	2,5	(1,7 - 3,3)	159	7,5	3,5	(3,0 - 4,1)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	210	19,3	7,5	(6,4 - 8,5)	170	16,4	11,2	(9,4 - 12,9)	380	17,9	8,8	(7,9 - 9,8)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	22	2,0	3,5	(2,0 - 4,9)	16	1,5	2,4	(1,2 - 3,6)	38	1,8	2,9	(2,0 - 3,9)
XVII Sortzetiko malformazioak	26	2,4	2,9	(1,7 - 4,2)	22	2,1	2,5	(1,4 - 3,7)	48	2,3	2,7	(1,9 - 3,6)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	315	28,9	10,8	(9,5 - 12,1)	196	18,9	13,8	(11,8 - 15,7)	511	24,0	12,4	(11,2 - 13,5)
XIX Kanpoko arrazoiak	202	18,5	11,4	(9,6 - 13,2)	495	47,6	39,5	(35,9 - 43,1)	697	32,7	24,7	(22,7 - 26,6)

\*Gordinak 100.000 biztanleko.

\*\* 100.000 biztanleko, Europako biztanleria estandarri adinaren arabera doituta.

Iturria:

Hilkortasun Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**4 A taula. Heriotza-kopurua eta hilkortasun-tasak, arrazoi-taldeak eta lurralde historikoa kontuan hartuta. Emakumezkoak, EAE 2006**

Arrazoi-taldeak	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	14	9,1	3,7	(1,7 - 5,7)	105	17,9	8,8	(6,9 - 10,7)	63	18	7,5	(5,3 - 9,6)
II Tumoreak	237	154,4	96,4	(83,0 - 109,9)	1.142	194,8	109,4	(102,4 - 116,5)	640	183	104,2	(95,2 - 113,1)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast.	6	3,9	1,6	(0,3 - 2,9)	21	3,6	1,5	(0,8 - 2,1)	10	2,9	1,1	(0,4 - 1,8)
IV Gaix.endokrinoak	48	31,3	11,8	(8,4 - 15,2)	174	29,7	11,8	(9,9 - 13,8)	89	25,5	10,7	(8,3 - 13,2)
V Trastorno mentalak	71	46,2	16,7	(12,8 - 20,7)	314	53,6	18,2	(16,1 - 20,2)	176	50,3	16,3	(13,9 - 18,8)
VI Nerbio-sistemako gaix.	76	49,5	21,5	(16,3 - 26,7)	290	49,5	19,2	(16,8 - 21,6)	190	54,3	21,1	(17,8 - 24,4)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	336	218,9	90,6	(80,4 - 100,9)	1.707	291,2	109,0	(103,5 - 114,5)	908	259,7	94,6	(88,1 - 101,1)
X Arnas sistemako gaix.	69	44,9	18,3	(13,7 - 22,8)	377	64,3	24,3	(21,7 - 27,0)	293	83,8	29,3	(25,8 - 32,8)
XI Digestio-sistemako gaix.	58	37,8	17,5	(12,6 - 22,4)	220	37,5	15,8	(13,5 - 18,2)	139	39,8	17,2	(13,9 - 20,4)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	9	5,9	2,2	(0,7 - 3,7)	9	1,5	0,6	(0,2 - 0,9)	9	2,6	0,8	(0,3 - 1,3)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko g	16	10,4	4,5	(2,1 - 7,0)	68	11,6	4,2	(3,2 - 5,3)	38	10,9	4	(2,6 - 5,3)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	20	13,0	6,1	(3,2 - 9,0)	120	20,5	8,1	(6,6 - 9,7)	70	20	6,8	(5,2 - 8,5)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	1	0,7	1,1	(-1,1 - 3,3)	16	2,7	5,0	(2,6 - 7,4)	5	1,4	2,3	(0,3 - 4,2)
XVII Sortzetiko malformazioak	4	2,6	4,0	(0,0 - 8,0)	16	2,7	2,9	(1,3 - 4,6)	6	1,7	2,3	(0,4 - 4,2)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	36	23,5	8,8	(5,9 - 11,8)	167	28,5	10,9	(9,0 - 12,7)	112	32	11,5	(9,1 - 13,8)
XIX Kanpoko arrazoiak	23	15,0	10,5	(5,5 - 15,5)	107	18,3	11,0	(8,6 - 13,3)	72	20,6	12,5	(9,2 - 15,7)

\*Gordinak 100.000 biztanleko.

\*\* 100.000 biztanleko, Europako biztanleria estandarrari adinaren arabera doituta.

Iturria:

Hilkortasun Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**4 B taula. Heriotza-kopurua eta hilkortasun-tasak, arrazoi-taldeak eta lurralde historikoa kontuan hartuta. Gizonezkoak, EAE 2006**

Arrazoi-taldeak	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	21	13,8	10,1	(5,7 - 14,5)	118	21,4	15,8	(12,8 - 18,8)	72	21,4	15,8	(12,0 - 19,6)
II Tumoreak	427	280,4	215,5	(194,7 - 236,4)	2.010	365,0	266,1	(254,2 - 278,1)	1.124	333,5	246,6	(231,9 - 261,3)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast.	6	3,9	3,2	(0,6 - 5,7)	14	2,5	1,7	(0,8 - 2,7)	6	1,8	1,1	(0,2 - 2,1)
IV Gaix.endokrinoak	35	23,0	17,0	(11,2 - 22,7)	104	18,9	12,9	(10,3 - 15,5)	82	24,3	17,2	(13,4 - 21,0)
V Trastorno mentalak	42	27,6	20,8	(14,4 - 27,1)	148	26,9	18,0	(15,0 - 21,0)	74	22,0	15,7	(12,0 - 19,4)
VI Nerbio-sistemako gaix.	51	33,5	25,1	(17,9 - 32,3)	201	36,5	24,6	(21,0 - 28,2)	131	38,9	27,2	(22,4 - 32,1)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	321	210,8	159,9	(142,3 - 177,6)	1.553	282,0	194,1	(184,2 - 204,0)	790	234,4	169,4	(157,4 - 181,3)
X Arnas sistemako gaix.	122	80,1	57,8	(47,4 - 68,3)	571	103,7	68,9	(63,1 - 74,7)	307	91,1	62,7	(55,5 - 69,9)
XI Digestio-sistemako gaix.	73	47,9	37,1	(28,4 - 45,7)	268	48,7	36,1	(31,7 - 40,6)	191	56,7	42,3	(36,2 - 48,4)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	1	0,7	0,6	(-0,5 - 1,6)	5	0,9	0,5	(0,0 - 1,0)	6	1,8	1,1	(0,2 - 2,0)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko g	6	3,9	2,5	(0,5 - 4,6)	21	3,8	2,7	(1,5 - 3,8)	10	3,0	2,2	(0,8 - 3,6)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	22	14,5	10,0	(5,7 - 14,2)	99	18,0	12,2	(9,7 - 14,7)	49	14,5	10,1	(7,2 - 13,0)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	4	2,6	4,2	(0,1 - 8,3)	7	1,3	2,1	(0,6 - 3,7)	5	1,5	2,1	(0,3 - 4,0)
XVII Sortzetiko malformazioak	3	2,0	2,1	(-0,4 - 4,5)	14	2,5	3,4	(1,5 - 5,2)	5	1,5	1,5	(0,2 - 2,8)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	29	19,0	15,2	(9,7 - 20,8)	100	18,2	12,6	(10,0 - 15,1)	67	19,9	14,9	(11,3 - 18,5)
XIX Kanpoko arrazoiak	60	39,4	33,5	(24,7 - 42,4)	275	49,9	41,9	(36,7 - 47,0)	160	47,5	38,4	(32,2 - 44,5)

\*Gordinak 100.000 biztanleko.

\*\* 100.000 biztanleko, Europako biztanleria estandarri adinaren arabera doituta.

Iturria:

Hilkortasun Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**4 C taula. Heriotza-kopurua eta hilkortasun-tasak, arrazoi-taldeak eta lurralde historikoa kontuan hartuta.  
Bi sexuak. EAE 2006**

Arrazoi-taldeak	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)	K	Tasa*	Tasa**	(KT% 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	35	11,4	6,7	(4,4 - 9,0)	223	19,6	12,1	(10,4 - 13,8)	135	19,7	11,3	(9,3 - 13,4)
II Tumoreak	664	217,1	150,9	(138,9 - 162,9)	3.152	277,3	176,3	(169,8 - 182,8)	1.764	256,9	165,7	(157,6 - 173,9)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast.	12	3,9	2,2	(0,9 - 3,5)	35	3,1	1,5	(1,0 - 2,1)	16	2,3	1,1	(0,5 - 1,6)
IV Gaix.endokrinoak	83	27,1	14,3	(11,1 - 17,5)	278	24,5	12,4	(10,9 - 13,9)	171	24,9	13,4	(11,3 - 15,5)
V Trastorno mentalak	113	37,0	18,1	(14,8 - 21,5)	462	40,6	18,5	(16,8 - 20,2)	250	36,4	16,6	(14,5 - 18,6)
VI Nerbio-sistemako gaix.	127	41,5	23,0	(18,7 - 27,2)	491	43,2	21,8	(19,7 - 23,9)	321	46,8	24,5	(21,6 - 27,3)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	657	214,8	123,0	(113,3 - 132,7)	3.260	286,8	146,5	(141,2 - 151,7)	1.698	247,3	127,9	(121,6 - 134,3)
X Arnas sistemako gaix.	191	62,5	34,7	(29,5 - 39,8)	948	83,4	40,6	(37,9 - 43,3)	600	87,4	42,7	(39,2 - 46,2)
XI Digestio-sistemako gaix.	131	42,8	26,8	(22,0 - 31,7)	488	42,9	24,8	(22,4 - 27,1)	330	48,1	28,5	(25,2 - 31,7)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	10	3,3	1,6	(0,6 - 2,6)	14	1,2	0,5	(0,3 - 0,8)	15	2,2	0,9	(0,5 - 1,4)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko g	22	7,2	3,7	(2,1 - 5,3)	89	7,8	3,7	(2,9 - 4,4)	48	7,0	3,3	(2,3 - 4,2)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	42	13,7	7,7	(5,2 - 10,1)	219	19,3	9,5	(8,2 - 10,8)	119	17,3	8,3	(6,7 - 9,8)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	5	1,6	2,7	(0,3 - 5,0)	23	2,0	3,5	(2,1 - 5,0)	10	1,5	2,2	(0,8 - 3,6)
XVII Sortzetiko malformazioak	7	2,3	3,0	(0,7 - 5,4)	30	2,6	3,2	(1,9 - 4,4)	11	1,6	1,9	(0,7 - 3,0)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	65	21,3	11,8	(8,8 - 14,7)	267	23,5	11,9	(10,4 - 13,5)	179	26,1	13,3	(11,2 - 15,3)
XIX Kanpoko arrazoiak	83	27,1	21,8	(16,8 - 26,8)	382	33,6	25,6	(22,8 - 28,3)	232	33,8	24,4	(21,1 - 27,8)

\*Gordinak 100.000 biztanleko.

\*\* 100.000 biztanleko, Europako biztanleria estandarrari adinaren arabera doituta.

Iturria:

Hilkortasun Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

**5. taula. Heriotza-arrazoi nagusien kopurua eta tasak, adin-taldeak eta sexua kontuan hartuta. EAE 2006**

Adina	Emakumezkoak			Gizonezkoak		
	Arrazoiak	K	Tasa*	Arrazoiak	K	Tasa*
< 1	Jaiotza-inguruko eritasunak	22	217,5	Jaiotza-inguruko eritasunak	16	151,1
	Sortzetiko anomaliak	11	108,7	Sortzetiko anomaliak	9	85,0
	Gaizki definitutako arrazoiak	2	19,8	Gaix. infekzioso eta parasitarioak	2	18,9
1 - 4	Tumoreak	2	5,3	Kanpoko arrazoiak	3	7,6
	Kanpoko arrazoiak	1	2,7	Gaix. infekzioso eta parasitarioak	1	2,5
5 - 9	Nerbio-sistemako gaix.	1	2,5	Nerbio-sistemako gaix.	1	2,5
	Tumoreak	1	2,4	Tumoreak	1	2,3
	Sortzetiko anomaliak	1	2,4	Zirkulazio-sistemako gaix.	1	2,3
10 - 14	Kanpoko arrazoiak	1	2,4	Kanpoko arrazoiak	1	2,3
	Tumoreak	1	2,6	Kanpoko arrazoiak	4	9,8
15 - 19	Tumoreak	1	2,6	Tumoreak	3	7,4
	Kanpoko arrazoiak	3	7,0	Kanpoko arrazoiak	8	17,7
	Sortzetiko anomaliak	1	2,3	Zirkulazio-sistemako gaix.	4	8,9
20 - 24	Nerbio-sistemako gaix.	1	1,8	Nerbio-sistemako gaix.	2	4,4
	Tumoreak	2	3,5	Kanpoko arrazoiak	26	43,8
	Kanpoko arrazoiak	2	3,5	Tumoreak	4	6,7
25 - 29	Nerbio-sistemako gaix.	1	1,8	Nerbio-sistemako gaix.	2	3,4
	Tumoreak	3	3,8	Kanpoko arrazoiak	37	44,7
	Zirkulazio-sistemako gaix.	3	3,8	Tumoreak	8	9,7
30 - 34	Gaix. endokrinoak	2	2,6	Zirkulazio-sistemako gaix.	6	7,3
	Tumoreak	12	13,6	Kanpoko arrazoiak	38	40,4
	Kanpoko arrazoiak	7	7,9	Tumoreak	10	10,6
35 - 39	Gaix. infekzioso eta parasitarioak	2	2,3	Zirkulazio-sistemako gaix.	8	8,5
	Tumoreak	19	22,4	Kanpoko arrazoiak	38	42,6
	Kanpoko arrazoiak	12	14,1	Tumoreak	22	24,7
40 - 44	Gaix. infekzioso eta parasitarioak	8	9,4	Zirkulazio-sistemako gaix.	16	17,9
	Tumoreak	45	51,8	Tumoreak	61	69,9
	Zirkulazio-sistemako gaix.	14	16,1	Kanpoko arrazoiak	41	47,0
45 - 49	Gaix. infekzioso eta parasitarioak	7	8,1	Zirkulazio-sistemako gaix.	36	41,3
	Tumoreak	86	102,7	Tumoreak	117	142,7
	Zirkulazio-sistemako gaix.	17	20,3	Zirkulazio-sistemako gaix.	50	61,0
50 - 54	Digestio-sistemako gaix.	9	10,8	Kanpoko arrazoiak	34	41,5
	Tumoreak	114	153,9	Tumoreak	193	266,6
	Zirkulazio-sistemako gaix.	21	28,3	Zirkulazio-sistemako gaix.	75	103,6
55 - 59	Kanpoko arrazoiak	11	14,9	Digestio-sistemako gaix.	37	51,1
	Tumoreak	107	152,6	Tumoreak	303	443,2
	Zirkulazio-sistemako gaix.	22	31,6	Zirkulazio-sistemako gaix.	105	153,6
60 - 64	Digestio-sistemako gaix.	8	11,4	Digestio-sistemako gaix.	38	55,6
	Tumoreak	158	249,2	Tumoreak	357	596,1
	Zirkulazio-sistemako gaix.	41	64,7	Zirkulazio-sistemako gaix.	132	220,4
